

Irulitxa Fanfarreak 20 urtez gure artean

1996ko maiatzaren 8an sortu zen Irulitxa Fanfarrea, herriko lagun talde batek sustatuta eta Musika Eskolaren laguntzarekin. Hogei urte igaro dira ordutik, eta gaur egun talde sendoa da, ibilbide oparoa egin duena. Hala ere, proiektu berriak dituzte esku artean, tartean Irulitxa Txaranga.



Apirilaren 8tik 10era ospatu zituen Irulitxa Fanfarreak bere 20. urteurrenaren lehen ekitaldiak. Asteburu horretan musikaz bete ziren herriko bazter guztiak, ha- maika lekutik etorritako musikari eta dantzari-er: Ustekabe (Eibar) Gazte Txaranga (Iruña), Charanga Corco (Logroño) Charanga sinjuicio (Casalareina, Errioxa), The Joselontxo's Txaranga (Donostia), Groseko Iñude eta Artzaiak (Donostia)...

Izan ere, badago zer ospatu. 1996ean elkartu zen lagun talde hura, sari ugari jaso dituen musika banda bilakatu da. Horren erakusle da Condom hiriko Nazioarteko Banden Txapelketan Urrezko

Palma jaso zutela 2010ean. 2013an, berriz, Brontzezko Palma jaso zuten orotariko kategorian; musika tradizionalean eta krea- zio kategorietan, berriz, lehen sariak eskuratu zituzten.

Eta Condomen egin zuten bezala, duten onena erakutsi zuten irulitxatarrek euren ospakizunetan: kalejira, poteo, erakustaldi eta kontzertuen bitartez. Aldi berean, momentu hunkigarriak eskaini zizkieten entzuleei, zendutako taldekideei omenaldia egin zitelako: Juan Antonio Gómezi, Luis Mari Gorritxategiri eta Miguel Ángel Bravori.

Txarangaren aurkezpena

22 musikarik osatzen dute Irulitxa egun, 18 urtetik 73

urtera bitartekoak, eta tartean Fanfarrearen fundazioan parte hartu zuten hiru kide daude oraindik: Pedro Urreta, Javi Agüero eta Alberto Rodríguez. “Gaur egun kideen erdia kanpoko dugu eta hemendik herriko neskak eta mutilak gurera deitu nahi ditugu”, dio azken 14 urteotan Irulitxako zuzendaria den Gorka García “Kaska” gasteiztar-ak. Ermuko jende gu- txi izateak hain zuzen ere, proiektu paraleloa sortzea eragin du, Irulitxa Txaranga. “12 musikarik osatzen dugu Txaranga (2 ermuar eta 10 kanpotar), eta talde horrekin estatu osotik mugitzen gara. Ermuan eta inguruetan jo behar dugunean, berriz, Fanfare moduan ibiltzen gara -dio

gasteiztar-ak. Txarangarekin bi urte badaramatzagu ere, apirilean aurkeztu dugu ofizialki Ermuan”.

Maiatzaren 8an urteurren ofiziala izango da eta Kulturaren aldeko kontzertua eskainiko dute, Alboka Musika Eskola, Pispilu abesbatza eta Txindurri dantza eta txistu taldearekin batera.

Familia txiki bat da Irulitxa, musikaren bitartez disfrutatzen duen hasierako lagun talde zintzoa, eta hemendik eskerrak eman nahi dizkiete ermuar guztiei, euren partaidetza eta babesagatik. Irulitxan izena eman nahi dutenek edo kontratazio- etarako taldearen facebookera jo dezakete edo 600435000 telefonora deitu.

BERRITZE LANAK
ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOAK
LAGUNDUKO DIZU

ZUK ERABAKI

www.spara.es
info@spara.es
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Eraikina Zeharkalea, 36, 3º 48260 Ermua - Bizkaia

enolimp
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel. 618 89 29 60 - 620 13 65 23
E-maila. enolimp@hotmail.com
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak

www.enolimp.es

TORREKUA

Pintxo eta kazolatxoak

Torrekua kalea 2 - Ermua
943 17 69 29